EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA
Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO
Dirección de Tecnologías de la Información y la Comunicación

Espedientea: KM/2023/021

Ahots sintetikoak grabatzeko laguntza teknikoa

Oinarri Teknikoen Plegua

Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 01 85 22 – Faxa: 945 01 87 06

AURKIBIDEA

Aurkibidea....2
Aurrekariak....3
Xedea....4
Egin beharreko zereginak....5
Entregatzekoak....7
Kontrola eta jarraipena....8
Lan-taldea....9
Eskaintzen egitura....11
Gauzatzeko epea eta aurrekontua....12
Balorazio-irizpideak....13
Jabetza intelektuala....14
Eranskina: Grabatu beharreko esaldien adibideak....15

AURREKARIAK

«Adimen artifiziala» (AA) [*«Artificial Intelligence»*, ingelesez] ez da teknologia berria, 50eko hamarkadan sortu baitzen. Hala ere, gaur egun atera diezaiokegu etekinik handiena, batez ere, azken urteotan izan diren aurrerapen teknologikoei esker.

Konputatzeko gaitasunean izan den hazkundeak, gaur egun edozein gairi buruz dauden datu ugarien eskuragarritasunak eta algoritmoen aurrerapenak Adimen Artifiziala XXI. mendeko teknologia estrategikoetako bat bihurtu dute.

Horregatik guztiagatik, adimen artifizialean oinarritutako sistemak funtsezko elementu bihurtzen ari dira erakunde askorentzat, administrazio publikoak barne.

Hala ere, bi alderdi garrantzitsu hartu behar dira kontuan AAz hitz egiterakoan:

1. Adimen artifizialak «ikasten» du ematen dizkiogun datuetatik. Horrek esan nahi du datuak araztu egin behar direla, sistemak emaitza zuzenak eta erabilgarriak eman ahal izan diezazkigun.
2. AAn oinarritutako sistemak berariaz entrenatzen dira zeregin zehatz bat egiteko. Horrek esan nahi du ibilgailu bat gidatzeko erabiltzen dugun adimen artifizialeko sistema bera ezingo genukeela erabili banku batek banku-eragiketetan iruzurrak detektatzeko, adibidez.

Eusko Jaurlaritzak martxan jarri duen azken proiektuetako bat **itzultzaile neuronala** da [https://www.euskadi.eus/itzuli], eta adimen artifizialean oinarritzen da. Izan ere, **«Itzuli»** Eusko Jaurlaritzak erabilera publikora bideratutako lehen proiektu praktikoa da.

itzuli
itzultzaile neuronala

Garrantzitsua da azpimarratzea AA-sistemak ez direla sistema isolatuak, baizik eta beste teknologia batzuetan oinarritu behar direla haien potentzial osoa hedatzeko. Adibidez, Prozesamendu Grafikoko Unitateak (GPU), *BigData* teknikak, algoritmo aurreratuak eta abar behar ditugu ahalik eta etekin gehiago ateratzeko.

Pertsonekin gertatzen den bezala, Adimen Artifizialeko sistema batek «ikasi» ahal izateko (edo, teknikoki, «kontzeptuak orokortzeko» gai izan dadin), hainbat fase igaro behar ditu: lehenengoari «ikaskuntza» deitzen zaio, eta, ondoren, «entrenamendu» fasea hasiko litzateke, non AA sistemak teoria praktikan jarri behar duen. Horretarako, ezinbestekoa da behar adina datu eta informazio izatea.

Beraz, espediente honen helburua da beharrezkotzat jotzen den laguntza tekniko espezializatuko zerbitzua kontratatzea, Eusko Jaurlaritzarentzat beharrezkoa den materiala sortzeko (kalitateari eta kantitateari dagokienez), Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Baliabideen Bankua osatzeko erabiliko dena.

XEDEA

Oinarri Teknikoen Plegu honen helburua da Eusko Jaurlaritzak (Teknologien Informazioaren eta Komunikazioaren Zuzendaritzaren bidez) beharrezkoak diren zerbitzuak kontratatzea, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Baliabideen Bankuan sartuko diren ahots-baliabideak sortzeko, kasu honetan, ahots sintetikoen grabazioak, hain zuen. Baliabide horiek Eusko Jaurlaritzak garatzen dituen adimen artifizialeko sistemak entrenatzeko oinarria izango dira, besteak beste, «Itzuli» itzultzaile neuronalarentzat.

Helburua da ordu kopuru minimo batzuk grabatzea (ahots grabazioak erregistro desberdinekin), eta egindako grabazioak erabiltzea «Itzuli»-ren funtzionamendua optimizatzeko, edo adimen artifizialean oinarritutako beste edozein informazio-sistema entrenatzeko.

Beraz, Oinarri Teknikoen Plegu honek enpresa esleipendunak bete beharreko irismena, helburuak eta/edo baldintzak deskribatzen ditu.

EGIN BEHARREKO ZEREGINAK

Atal honetan, espedientearen enpresa esleipendunak bere gain hartu beharko dituen zereginak eta/edo funtzioak zehaztuko dira, eta baita beharrezkoak izango liratekeen baliabideak, aurreikusitako dedikazioa eta entregatu beharreko produktuak ere. Lan horiek egiten dituen enpresak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzaren (aurrerantzean IKTZ) edo hark ezartzen duen pertsonaren ikuskaritza zuzena izango du.

Aipatu dugun moduan, multimedia-baliabide batzuk (ahots grabazioak, hain zuzen) sortu nahi dira Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Baliabideen Banku Irekian sartzeko. Baliabide egokiak lortzeko, hainbat profil eta erregistro kontuan izango dira.

Enpresa esleipendunak gauzatu beharko dituen **zeregin nagusiak** honako hauek izango dira:
Esaldi solteak irakurtzea eta grabatzea:

- ✓ Irakurketa bi irakurle edo esatari profesionalek egingo dute grabazio-estudio batean
- ✓ Esatari bakoitzak 10.000 esaldi inguru irakurri beharko ditu
- ✓ Grabazioa esaldiz esaldi egingo da

Testu osoak irakurtzea eta grabatzea:

- ✓ Irakurketa bi irakurle edo esatari profesionalek egingo dute grabazio-estudio batean
- ✓ Zenbait eduki irakurriko dira, beti ere irakurketa naturala bilatuz, eta esaldi bakoitzaren artean etenaldiak (200/300 ms-ko isiluneak) egingo dira, ondoren Eusko Jaurlaritzaren teknikariek grabazioa prozesatu ahal izateko
- ✓ Testu osoa grabazio batean emango da

Proiektuaren hasieran, Eusko Jaurlaritzak emango dizkio enpresa esleipendunari irakurri beharreko esaldiak eta testu guztiak.
[*«Grabatu beharreko esaldien adibideak»* **eranskinean,** esatariek irakurri eta grabatu beharko dituzten testuen eta/edo esaldien adibideak daude eskuragarri]

Grabazio-metodologia honako hau izango da:

- ✓ Grabatu beharreko domeinu eta erregistro kopurua gutxienez 2 izango dira. (Enpresa esleipendunak, egoki baderitzo, 2 pertsonaren zerbitzuak erabili ahal izango ditu [emakume bat eta gizon bat] grabazio guztiak egiteko. Kasu horretan, bi pertsonek beren tonalitatea Eusko Jaurlaritzak eskatutako hizkuntza-erregistroetara [domeinuak] egokitzeko gai izan beharko dute).
- ✓ Grabazio guztiak grabazio profesionaleko estudio batean egingo dira.
- ✓ Euskaraz grabatzen diren testuetan, esatari bakoitzak hizkuntza eta domeinu berbera erabiliko du grabazioa egiterakoan, eta esatari guztien artean estilo eta ahoskera homogeneoei buruzko konbentzioak adostuko dira (fonetika, anglizismoak, asmoa, etab.).
- ✓ Testuak (esaldiez osatuak) emozio desberdinekin ahoskatu beharko dira (*«neutroa»*, *«galdera»*, *«harridura»*...). Esaldi bakoitzari etiketa emozional bat gehituko zaio.
- ✓ Esatari bakoitzak hainbat esaldi izango ditu grabatzeko. Esaldi-sorta hori desberdina izango da aplikazio-domeinu bakoitzeko, eta orekatua egongo da maila fonetikoa, egitura eta esaldi-tipologiei dagokienez.
- ✓ Grabazioak esaldiz esaldi egingo dira, eta pertsona/esatari bakoitzari dokumentu bat (Excel fitxategi bat edo baliokidea) emango zaio, esatari bakoitzak grabatu beharko dituen esaldi guztiekin. Dokumentu horrek lerro bakoitzean esaldi bat izango du, eta esaldi bakoitzak identifikazio-kode bakar bat izango du.
- ✓ Enpresak audio-fitxategi bat sortuko du grabatutako esaldi bakoitzarekin (esaldi horren identifikatzailea barne). Horrela, testu-fitxategia eta audio-fitxategia automatikoki erlazionatu ahal izango dira (adibidez, esaldia1001.txt, esaldia1001.wav).

- ✓ Entregatuko den audio grabazio bakoitzak gutxienez 500 milisegundoko isiluneak izango ditu hasieran eta amaieran. (Audioaren kodifikazioari eta formatuari dagokienez, gutxieneko kalitatea honako hau izango da: PCM WAV 44,1 kHz eta 24 bit lagin bakoitzeko)
- ✓ Audioek ez dute ahoskera-akatsik izan behar, eta lokuzioak ahoskera argia eta irakurtzeko/ulertzeko modukoa izan beharko du. Gainera, behar bezala normalizatuta egon beharko dute intentsitateari, kalitateari eta bolumenari dagokienez.

Sortu beharreko ***corpus***-aren tamainari dagokionez, hauek dira bere ezaugarriak:

- Hizkuntza bakarra erabiliko da (**euskara**)
- Genero eta eremu desberdinak bete nahi direnez, hautaketa bat egin da alderdi horiek guztiak kontuan hartuta, ahalik eta espektro handiena lortzeko.

Erreferentzia gisa, hona hemen hizkuntza-eremu edota -erregistro bakoitzean lortu nahi diren ordu garbiak:

Eremua	Generoa	Hizkuntza	Orduak [1]
Generikoa/Narratiboa	Emakumea	Euskara	**25**
Generikoa/Narratiboa	Gizona	Euskara	**25**
		Guztira...	**50**

[1] *Oharra: hemen adierazitako orduak **ordu garbiak** dira, beraz ez dira halakotzat hartuko esaldi bakoitzaren hasieran eta bukaeran sartu beharreko isiluneak edo etenaldiak.*

Enpresa esleipendunak eginkizun guztiak egingo ditu Eusko Jaurlaritzako Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzarentzat.

Giza baliabideen plangintza

Eskaintzak aurkeztuko dituzten enpresek **baliabideen aurreikuspena egin beharko dute** (pertsonak eta profilak), egin beharreko lanen arabera.

Denboraren plangintza

Hasierako bileran plangintzaren xehetasunak zehaztuko dira. Hala ere, enpresak hasierako plangintza bat sartuko du bere eskaintzan, eta bertan honako informazio hau agertu beharko da:

- Aurreikusitako **epea** (enpresak lana egiteko beharrezkotzat jotzen dituen asteen kopurua adierazi beharko du)
- Proiektuaren **faseak** edo **mugarriak** adieraziko dira, hau da, lana nola banatuko den
- Eusko Jaurlaritzak esleitu beharko dituen **baliabideen** aurreikuspena

(Informazio hori **orientagarria** izango da, eta proposatutako lantaldearen tamaina egokia den edo ez eta helburuen betetze-maila baloratzeko erabiliko da. Hala ere, ez da lanorduen kontratazio bat, baizik eta eskainitako guztizko zenbatekoaren araberako *«giltza eskura»* proiektu bat).

Beraz, **lan-egutegi bat** *(plangintza)* sartu beharko da eskaintzan.

ENTREGATZEKOAK

Espediente honen bidez, hainbat profil eta/edo erregistro erabiliz, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Baliabideen Bankuan sartuko diren **euskarazko ahots sintetikoen grabazioak** entregatu beharko dira.

Entregatu beharreko grabazioen ezaugarriak aurreko atalean zehaztu dira.

Eusko Jaurlaritzak (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzaren bitartez) sortuko duen *«SharePoint»* batean utzi ahal izango dira grabazioak eta gainerako dokumentuak.

Agiriren bat (aktak, etab.) egin behar izanez gero, euskaraz edo gaztelaniaz entregatu ahal izango da.

KONTROLA ETA JARRAIPENA

Egin beharreko lanaren ezaugarriak eta aurreikusitako iraupena kontuan hartuta, proiektuaren ardura duen zuzendaritzak bilera hauek antolatzea aurreikusi du:

- **Hasiera:** bilera honen helburua izango da egin beharreko lanaren inguruabarrak azaltzea. Bertan parte hartuko dute Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzak izendatutako pertsonek eta enpresa esleipendunak proiektua garatzeko proposatutako pertsonek. Bilera horretan, Administrazioak lana osatzeko beharrezko informazioa eta/edo agiriak emango dizkio enpresa esleipendunari, eta enpresa esleipendunak proposamenaren xehetasunak eta interesgarritzat jotzen duen gainerako informazioa aurkeztuko ditu.
- **Jarraipena:** lanaren garapena errazteko eta proiektua amaitzeko entregatu beharreko grabazioen ildo nagusiak zehazteko, hasierako bileratik 15 eguneko epean gutxi gorabehera, **grabatutako zenbait adibide** eman beharko zaizkio Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzari, Eusko Jaurlaritzak ezarritako baldintza tekniko eta funtzionaletara egokitzen diren edo ez zehazteko. Ondoren, gutxienez bi astean behin, jarraipen-bilera bat egingo da enpresa esleipendunaren eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzaren artean, egiten ari diren lanen garapena ezagutzeko.
- **Itxiera:** proiektuaren azken bilera da. Bertan, enpresa esleipendunak egindako lanak errepasatuko dira, eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza arduratuko da entregatutako lanak egiaztatzeaz eta baliozkotzeaz.

  Oharra: egokitzat eta beharrezkotzat jotzen den ezohiko beste edozein bilera egin ahal izango da, edozein parte-hartzailek eskatuta (Eusko Jaurlaritzan proiektuaren ardura duen zuzendaritzak edo enpresa esleipendunak). Bilera horien helburua izango da berehalako erantzuna eskatzen duen edozein **gorabehera larri** konpontzea.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzak hala adierazten badu, enpresa esleipendunak proiektua garatzeko funtsezko erabakiak hartzen dituzten **bileren akta** egingo du.

LAN-TALDEA

Lan-programa honen bidez, plegu honetako *«Egin beharreko zereginak»* atalean deskribatutako zereginak egin nahi dira. Enpresa esleipendunak koordinatuko ditu harremanak, lanen kalitatea eta entregatu beharreko produktuen kalitatea. Horretarako, antzeko lanetan izandako ezagutza eta eskarmentua erabiliko ditu.

Eusko Jaurlaritza (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzaren bitartez) honako hauetaz arduratuko da:

- Lan guztiak zuzentzea.

  (Enpresa esleipendunak IKTZ-aren ikuskaritzapean egingo ditu lan guztiak)
- Proiektuaren garapenean eragina duen edozein gairi buruz erabakitzea
- Bitarteko eta/edo amaierako produktuak onartzeaz (edo, hala badagokio, baztertzeaz)

Proiektuaren arduradun bezala izendatutako pertsonak zuzenduko du **lan-taldea**. Arduradun horrek arduraldi egonkorra izango du, proiektuko zeregin guztiak koordinatuko ditu eta solaskide nagusia izango da Eusko Jaurlaritzak izendatutako pertsonarekin.

Lan-taldea planteatutako beharretara egokitutako lanbide-kategoria eta espezializazio-maila duten langileek osatuko dute, garatu beharreko ekintzen arabera.

Horri dagokionez, *«Egin beharreko zereginak»* atalean [euskarazko lokuzioetan] zehaztutako lokuzio-lanak egingo duen pertsonak edo pertsonek euskararen ezagutza izan beharko dute C1[1] ziurtagiriak egiaztatzen duen parekoa, eta esperientzia nahikoa antzeko zereginetan.

Enpresa esleipendunak egin duen lantaldeko kideen izendapena aldatu ahal izango da IKTZ-ak hala eskatuz gero, hark egokitzat jotzen badu. Kasu horretan, enpresa esleipendunak beste pertsona batzuk proposatu beharko ditu, hasieran proposatutako kategoria eta zirkunstantzia pertsonal eta profesional berberak edo antzekoak dituztenak, baina horrek ez du inola ere ekarriko eskainitako prezioa edo beste kontzepturen bat aldatzea.

Lan guztiak esleipendunaren egoitzan egingo dira. Lanen bat Eusko Jaurlaritzaren egoitzan egin behar bada, lanaldia Eusko Jaurlaritzak ezarritakoari egokituko zaio.

Aurkeztuko diren eskaintzek, *«Lan-taldea»* atalean, honako informazio hau sartu beharko dute [ikus *«Eskaintzen egitura»*]:

Lan-taldearen organigrama (lan-kategoria bakoitzeko pertsona bakoitzaren eginkizunak eta erantzukizunak zehaztuta eta *curriculum vitae*ari buruzko aipamen labur bat). Lan-taldeko partaide bakoitzari buruzko oinarrizko informazioa zehaztuko da ere, adibidez:

- Titulazioa
- Lan-kategoria
- Ibilbide profesionala

[1] 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena (azaroaren 15eko EHAA, 219. zk.).

- Esperientzia enpresan/erakundean lanbide-kategorian (hilabeteetan)
- Azken urteetan antzeko proiektuetan izandako esperientzia (proiektua, iraupena, emandako lanorduak, lan-kategoria eta zenbatekoa)

Halaber, orduak zehazteko, taula honen antzeko bat aurkeztu beharko da:

Profila	Aurreikusitako orduak, guztira	Eskainitako orduen %, proiektu osoarekiko
Proiektuaren arduraduna		
Esataria		
…		

(Oharra: beharrezkotzat jotzen diren profilak gehitu ahal izango dira)

ESKAINTZEN EGITURA

Aurkeztutako eskaintzan jasotako dokumentazio tekniko guztiak ondorengo eskema jarraituko du:

1. **Sarrera**. Aurkeztutako dokumentazioaren egituraren deskribapen laburra.
2. **Lan-taldea**. Zereginak egiteko enpresako/erakundeko lantaldea osatzen duten langileen zereginen deskribapena (antolamendua eta funtzioak).
3. **Plangintza eta metodologia**. Faseak eta egin beharreko ekintzak deskribatzea. Proiektua zein fasetan banatzen den zehaztuko da, haren garapena errazteko. Fase bakoitzerako zehaztu ahal izango dira helburuak, egin beharreko ekintzak, erabili beharreko tresnak eta/edo teknikak, lortu beharreko produktuak etab.
4. **Kontrola eta jarraipena**. Tarteko lanen kontrola eta jarraipena errazten duten prozeduraren deskripzioa, eta Eusko Jaurlaritzan proiektuaren ardura duen zuzendaritzarekiko harremana zehaztuko da.

Edozein unetan, hau da, esleipenaren aurretik edo ondoren eta lanak egiten diren bitartean, Administrazioak eskumena izango du beste edozein dokumentu osagarri eskatzeko, lizitatzaileak eskainitako datuak egiaztatzeko (enpresari buruzko datuak zein proposatutako langileei buruzkoak).

GAUZATZEKO EPEA ETA AURREKONTUA

Lanak egiteko gehienezko **epea hiru (3) hilabetekoa** izango da, esleipena egiten denetik hasita.

Plegu honetan adierazitako lanak burutzeko gehienezko **aurrekontua**, hauxe da:

30.000,00 euro (BEZa barne)

Esleipenaren zenbatekoa honako mugarri hauen arabera ordainduko zaio enpresa esleipendunari:

Mugarria	Deskribapena	Ordaindu beharreko ehunekoa (*)
M1	Hasierako bilera egin ondoren	% 30
M2	Grabazioen lehen lagina eman ondoren	% 20
M3	Ixteko bilera egin ondoren eta eskatutako grabaketa-ordu guztiak entregatu ondoren	% 50

(*) Enpresa esleipendunaren eskaintzaren arabera

Burutzen diren atazak betetako mugarrien arabera ordainduko dira, eta betie ere IKTZ-ak mugarri horri dagozkion atazak (kasu honetan, grabazioak) behar bezala egin direla eta baldintza-agiri honetan jasotako beharrezko kalitate-baldintzak eta ezaugarriak betetzen direla egiaztatu eta baliozkotu ondoren.

BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Aurkeztutako eskaintzak baloratzeko erabiliko diren irizpideak (eta puntuak) ezagutzeko, kontsultatu ondorengo dokumentua:

«ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA»

JABETZA INTELEKTUALA

Enpresa esleipendunak honako klausula hauek onartzeko konpromisoa hartzen du:

- ✓ Egindako lanarekin lotutako jabetza intelektualaren eskubideak Administrazioari/EJIEri dagozkio.

  Enpresak sortzen duen edo sortu duen produktu edo azpiproduktu oro ezingo du erabili dagokion esparrutik kanpoko beste helburu batzuetarako, Administrazioaren berariazko idatzizko baimenik gabe (kasu horretan, baliozko solaskide bakarra IKTZa izango da).

- ✓ Lana egin bitartean sortutako dokumentazioa EAEko Administrazioaren jabetzakoa da esklusiboki, eta enpresa esleipendunak ezin izango du dokumentazio hori kontserbatu, haren kopia lortu edo hirugarrenei eman EAEko Administrazioaren idatzizko baimenik gabe (kasu honetan, baliozko solaskide bakarra IKTZa izango da), eta, hala badagokio, baimena emango luke enpresak eskaera formala egin eta lortu nahi duen helburua adierazi ondoren. Paragrafo honetan xedatutakoa ulertuko da, kontratatutako lana egin izana frogatzeko ez bada. EAEko Administrazioak berariaz baimentzen du lan honen emaitzak IKTZak berak etorkizunean egin beharreko lanen erreferentzia eta oinarri gisa erabiltzen bada.

Vitoria-Gasteiz-en, 2023ko martxoaren 3an

Digitalki sinatuta / Firmado digitalmente
Pablo Pérez Lafuente
2023.03.03 13:34:11 +01'00'

Pablo Pérez Lafuente

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza

ERANSKINA: GRABATU BEHARREKO ESALDIEN ADIBIDEAK

Jarraian, esatariek irakurri eta grabatu beharko dituzten testuen eta/edo esaldien adibideak dituzue eskuragarri.

Euskaraz:

ID	Testua
GAL0001	Gaur egun ere horrela da?
GAL0002	Baita familia enpresetan ere?
GAL0003	Ba al da hilerririk Interneteko zerbitzuentzat?
GAL0004	Zeintzuk izaten dira hona etortzen direnen zalantza nagusiak?
TRI0001	Hori dela eta, nahita egiten diren apurketak errespetu falta bat dira Aramaioko herritar guztiontzat.
TRI0002	Eta Debagoienean?
TRI0003	Euskaraldirako prest.
TRI0004	Zertan dabiltzan konturatu ez garela pentsatzen ahal dute?
HAR0001	Jaun andreok!
HAR0002	Subrealista!
HAR0003	Duela bost urtetik!
HAR0004	Nola esan daiteke borondate eza duela!
NEU0001	Suhiltzaileak, Ertzainak eta anbulantziak segituan bertaratu ziren.
NEU0002	Adierazi duenez, uharte hau batzea izango da gure arrakastarik handiena, eta gure zeregina izango da unionistak helburu horretara erakartzea, Irlanda berri bat eraikitzen lagun diezaguten.
NEU0003	Puntuz puntu saiatzen da bertsolaria lortzen, emandako rolean ahalik eta ondoen sartuz.
NEU0004	Nahiz eta jakitun izan hotza, iluna, beltza, ate joka dugula.
POZ0001	Greba feministak denetariko emakumeak batu eta espazio ezberdinak astintzen lagunduko digulako, zatoz gurekin!
POZ0002	Enkore, Ze esatek!
POZ0003	Eskerrak denei aldez aurretik.
POZ0004	Jai horietako berezitasun bat da irteten diren erraldoiak eta txorimaloak bertakoak, Atzeko Kalekoak direla.
SIG0001	Berrikuntza horiek Erre Hatxe Eren izenpean kaleratuko dira eta etxean, produktuen erabilerraztasuna, eraginkortasuna eta sukaldaritza profesionala lehenetsiko dituzte.
SIG0002	Batzuk Ze Ube Kun arazorik gabe jokatzeko moduan ikusi ditut.
SIG0003	Diligentziak De Ene U Pek daramatza.
SIG0004	Bigarren zatian Zeta Ku I Ube Bikoitza Gerak berdinketaren bila irten dira, eta aukeraren bat izan badute ere hirurogeita bosgarren minutuan Gaizka Irizarrek, falta jaurtiketa bikain baten bidez, bi eta koa lortu du.
ZEN0001	hiru zortzi, hiru hiru
ZEN0002	zortzi bederatzi zero bi, sei bat bi bost, bi zazpi bat lau, sei sei bost zero
ZEN0003	bat bost zero sei, zortzi hiru zazpi, hiru lau, bi bederatzi bost lau
ZEN0004	zazpi bat, bi zortzi bat, lau bost

Oharra:
Gal: galdera/TRI: tristura/HAR: harridura/NEU: neutroa/POZ: poza/SIG: siglak/ZEN: zenbakiak